



Espainiako pinturaren zenbait joera orain

urriak 6 – azaroak 5, 2020

Prentsa-oharra

Espainiako pinturaren zenbait joera orain Villa Magdalena inauguratzen duen erakusketa bat da, Jorge Galindo, Alejandro Garmendia, Felicidad Moreno eta Matías Sánchez protagonista dituen. Artista horien lanak lehen aldiz jarri dira batera ikusgai, testuinguru geografiko honetan pinturari buruzko elkarrizketa bizi bati hasiera emateko helburuarekin. Erakusketaren asmoa ez da mugimendu espezifiko bat definitzea, lau artisten lan sorta baten bidez haien narratiba pertsonalak islatzea baizik, aztergai dituztenak abstrakzioa, figurazioa, eta gaiak eta moduak pinturan. Hala, bakoitzak bere proposamena du egungo pinturatzat har daitekeenaren gainean.

Erakusketaren asmoa identitate desberdinak aurkeztea da, Espainiako pinturak orain osatzen duen paisaiaren parte direnak. Barnean hartzen duen espazioko hormak berak ere pinturak dira, goroldioz estaliak, eta denboraren joanak eta euskal eskualdearen berezko hezetasun naturalak astinduak.

Jorge Galindo (Madril, 1965) Espainiako abstrakzio gestualaren abangoardian egon da 90eko hamarkadaren hasieratik. Bere hainbat seriek —Patchwork (1996-98), Pintura animal (2000) eta Fotomontajes Pintados (2004-2009) besteak beste— collagearen asmamen handiko erabilera, era askotako imajinak eta pintzelkada espresionista geldiezin iradokitzen dizkigute. El Eco de las Flores —oraindik prozesuan— bere serie berrienak ekintza-pintura eta gai jakin batzuk uztartzen ditu. Lore deigarriak dira, modu aske batean irudikatuak, etengabe mugitzen ilusio antzeko batean, edozein unetan aldatu edo desagertuko balira bezala. Pintura horietan, aurreko askotan bezala, desegin, itxuraldatu eta birsortu egiten dira konposizioa eta pintzelada. Dinamikoak dira, irudiak edo gaia edozein izanda ere itxura berriak hartzen jarraitzen dutelako, aurretik ikusi izan ez bagenu bezala.

Alejandro Garmendiak (Donostia, 1959 - 2017) jarrera subertsibo bat zuen, eta trebetasun handiz hurbiltzen zen paisaiaren eta arkitekturaren egitura estetikora eta alderdi formaletara. Abiapuntu batera zuzentzen zituen, non irudi ugari agertzen ziren forma anitzetan, eta existitzen ez dena dokumentatu eta fisikoki ezinezkoa dena sortzen zuen horrela. Objektu fantasmagorikoek aldatu egiten dute beren konfigurazioa, eta transformatu egiten dute begiratzen duguna eskala eta plano nahasten diren mundu batean, grabitatea desagertzera. Estilo berezi batera ezinbestean mugatzen ez diren eszenak dira; izan ere, bakardadeak eta melankoliak hartutako pertsonaia emozional baten ikuspegi metafisiko urrun bat iradokitzen dute, eskaini egiten diguna margotutako irrealitate berri bat.

Felicidad Morenok (Madril, 1960) zerbait kosmikoa eta aldi berean mikroskopikoa transmititzen du bere obrarekin. Uztartu egiten ditu txikia eta handia beren neurrigabetasunean. Urteetan zehar Morenok arakatzen jardun duen hizkuntza piktorikoan argi-itzal sorta bihurtzen dira lerro gainjarriak, esprai-pintura, esmalte-tanten jarioak eta trazu gestual kurbatuak, ezezagunean murgiltzen gaituzten abstrakzioak sortzeko. Ez hasierarik ez amaierarik ez duen espedizio estetiko bati ekin dio Morenok. Bere obrak sortzen duen errealitate paraleloan, utzi egiten dio irudimenari espazioan flotatzen eta, aldi berean, munduaren ikuskera molekular bat esperimentatzen.

Matías Sánchezek (Tübingen, 1972) historiaren eta egunerokotasunaren bere bertsio goibela aurkezten du. Bere obrako pertsonaiak zirrargarriak bezain xarmagarriak dira. Hirikoak baino gehiago landakoak diren izakiez —gizaki zein animalia— osatutako antzerkia. Besteak beste, erretzailleak, mozkorrak, baserritarrak, arratoiak, kaleko katuak eta

filosofo mespretxatuak, Viridianako Buñuelen arloteak gogorarazten dizkigutenak. Itsusitasunaren erabateko poetika. Pintura trinkoak dira, bai forman bai narratiban. Sánchez, gaztetatik, Espainiako barroko pintoreen eraginpean egon zen; haietako bat Juan de Valdés Leal zen, zeina Andaluzian, batez ere Sevillan, gailendu baitzen, eta hain zuzen, han igaro izan du artistak ia bere bizitza osoa. Gainezka egiten duten bere konposizioek eta keinu figuratibo gehiegizkoek une historikoari emandako erraietako erantzun bat irudikatzen dute. «Gehiegikeria, gure eguneroko ogia» (Matías Sánchez).

Asteartetik igandera, hitzordua aurretik eskatuta.

Informazio gehiago: cyschnabel@gmail.com, +19173556437, +34 659 867 034